

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzordearen 2025eko ekainaren 13ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez onartzen baita Gasteizko ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduetan isolamendu akustikoaren azterketa egiteko Gasteizko Udalaren dirulaguntzen 2025eko deialdia

BDNS(Identif.): 847786.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/847786>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehena. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridikoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, unitate ekonomikoak edo nortasun juridikorik gabeko ondare bananduak, Vitoria-Gasteizen dagoen ostalaritzako edo gaueko aisialdiko establezimendu jabe edo jardueraren titular direnak baldin eta dirulaguntzaren xede den isolamendu akustikoaren azterketa egiten badute.

Bigarrena. Xedea

Akustika arkitektonikoan espezializatutako enpresa edo teknikoek isolamendu akustikoaren azterketa egiteko dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, lokalaren aireko zaratarekiko isolamendu akustikoa kuantifikatzeko, Zarataren eta bibrazioen aurkako udal ordenantzan ezarritako parametroetan oinarrituta.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi ditu 2025eko ekainaren 13an, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

50.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2025eko abenduaren 1ean amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 8a

*Hiri Ereduen, Hirigintzen, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta
Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administrazio burua*
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ